

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Erandioko Udala**

**Ayuntamiento de Erandio**

**2009**



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>0. LABURDURAK.....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....</b>	<b>11</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	11
III.2 Langileria.....	11
III.3 Diru-laguntzak.....	12
III.4 Kontratazioa.....	14
<b>IV. FINANTZA ANALISIA.....</b>	<b>17</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>22</b>
<b>ALEGAZIOAK.....</b>	<b>25</b>
<b>0. ABREVIATURAS.....</b>	<b>33</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>35</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>36</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	37
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>39</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad.....	39
III.2 Personal.....	39
III.3 Subvenciones.....	40
III.4 Contratación.....	42
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....</b>	<b>45</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>50</b>

<b>ANEXOS .....</b>	<b>53</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	53
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	54
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	57
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	58
A.5 Enajenación de inversiones reales .....	59
A.6 Gastos de personal .....	60
A.7 Compras de bienes corrientes y servicios.....	61
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas .....	63
A.9 Inversiones reales.....	64
A.10 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales.....	65
A.11 Pasivos financieros .....	66
A.12 Deudores presupuestarios.....	67
A.13 Operaciones extrapresupuestarias .....	68
A.14 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	69
A.15 Clasificación funcional del gasto .....	70
A.16 Análisis de contratación .....	71
 <b>ALEGACIONES .....</b>	 <b>73</b>

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maitzaren 31a  
Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2012



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 0. LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
INEM	Enplegu Institutu Nazionala, egungo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra,
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
UDALHITZ	Tokiko euskal erakundeetan lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Erandioko Udalaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Erandioko udalerrriak 2009ko urtarrilaren 1ko biztanleen udal erroldaren arabera 24.262 biztanle ditu eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren partaide da.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILERIA

1. Udalak indarrean ditu 2003an gauzatutako iraupen mugatuko bi lan kontratu. Funtzio publikoaren arautegiak (EFPLren 23. artikulua) agintzen du langileen etengabeko beharrianak LZn islatu behar direla, gerora dagokion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.
2. Otsailaren 27ko 370/2009 Alkatetzaren Dekretu bitartez, zerbitzu eginkizunetan Erandioko Udaltzaingoaren ofizialorde modura aldi baterako atxikitzeko baimena eman zaio beste administrazio publiko batekoa den funtzionario bati, borondatezko aldi baterako hornidura prozeduran berdintasun eta publizitate printzipioak batere gorde gabe, prozesu hori ez delako ez iragarri, ezta deitu ere. Dekretu hori baliogabe izendatu du Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 2 zenbakiko Auzitegiak, 2011ko martxoaren 17an ebatzitako epai bidez. Epai hori Udalak ere errekurritu du.

#### KONTRATAZIOA

3. Guztira 1.051 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (A.16ko 5 eta 13 zk. esp.), esleipen prezioa hurrenez hurren % 75ean eta % 43an gainditzen duten aldaketak onetsi dira, prezio izanik kontratuaren baldintza oinarritzkoa; honek kontratazio arautegiaren lehia printzipioak urratu ditu, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratu baitu. Horietako batean (13 zk. esp.) nahiz aldaketa obrari ekin aurretik sortu den (2009ko martxoa), 2010eko abenduan onetsi da, prezio kontrajarriak ezarrita eta arrazoia ustekabekoa dela justifikatu gabe; horrek guztiak SPKLren 202 artikulua urratzen du. Bestean (5 zk. esp.) kontratazio atalak onetsi gabeko 123 mila euroren beste aldaketa bat egin da.
4. Argiteria publikoaren mantentze lanak xede dituen kontratua 2005ean esleitu zen 2 urtetarako, beste bitara luzagarri; kontratu horren indarraldia 2009ko otsailean amaitu zen. Espediente berriaren izapideari 2009ko azaroan ekin zitzaion, baina 2010eko maiatzean behin-betiko esleitu arte zerbitzua enpresa berari esleitu zaio, 109 mila euroren kontratu txikiak elkarri kateatuz.
5. Udalak zuzenean kontratatu ditu telefonia eta Internet zerbitzua eta prentsan iragarkien argitalpena, hurrenez hurren, 143 eta 123 mila euroren zenbatekoan, dagokion kontratazio prozedura izapidetu gabe.





## BESTELAKOAK

6. Erandioko Udalak eta Bilboko Gotzaindegiak aldez aurretik 545 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatzeko hirigintza kudeaketako hitzarmena izenpetu zuten, lagatzaileei eraikitzeko eskubideak gordeko ziena eta sistema orokor bat exekutzeko helburua zuena; hitzarmenak jasotzen du Udalak obligazioa duela 20 mila euroan baloratutako aparkalekuaren exekuzioa finantzatzekoa eta 25 mila euroren ordainketa egitekoa, udalerriko Andra Mari elizan gai elektronikoak zaharberritzeko dena. Prestazio horiek kontrajarri egiten zaizkio okupazioak berak duen doako izaerari eta 2/2006 Legearen 188. artikuluari, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

Epaitegi honen ustetan, Erandioko Udalak, 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Honekin baterako likidazioaren sarreren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 13.619 mila eurokoak dira eta 2009ko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei eta 2008ko ekitaldiaren kitapen negatiboari dagozkio; hor jasotzeko dago 2009ko ekitaldiaren kitapen negatiboa, 3.259 mila eurokoa. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an erabakitakoari jarraiki, kopuru horren itzulera hileroko egingo da 2011ko urtarriletik 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

1. Hona hemen 2009ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funts Propioak eragiten dituzten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		FUNTS
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	PROPIOAK
<b>09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak</b>				
A.3 Aurreko urteetako transmisio bati dagokion HILBIZ .....	84	84	-	84
A.4 Kapital diru-laguntzek eragindako sarrerak.....	1.642	1.642	1.342	300
Asoziat. finantzak. desbider. positiboa .....	(1.342)	-	-	-
A.13 Aurrekontuz kanpoko kobrantzak aurrekontuari egoztea .....	2.512	142	(148)	290
Asoziat. finantzak. desbider. positiboa .....	(2.387)	-	-	-
<b>Sortu gabeko eta 09.12.31n erregistratutako eskubideak</b>				
A.3 Kiroldegietako zerbitzuen kontzep. tasen erregistroan bikoizt. ....	(213)	(213)	-	(213)
<b>Beste batzuk</b>				
A.5 Birpartzelazioan eskuratutako lursaila ondare kontabilitatean erreg. .	-	219	-	219
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>296</b>	<b>1.874</b>	<b>1.194</b>	<b>680</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan xehatutako ez-betetzea salbu, Erandioko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan, adierazi dituzte ekitaldi horretako ekonomia jarduera, ondarearen irudi fidela, finantza egoera ekitaldiaren amaieran eta ekitaldian bere eragiketen emaitzak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren 2009ko aurrekontu plantillak ez ditu ordaingarri diren ordainsari kontzeptuen arabera antolatutako kreditu zuzkidurak jasotzen, EFPLren 21. artikulua agintzen duen moduan.
- Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:
  - Osoko bilkura eta batzordeetara joateagatiko diru-kopuruak eta kalte ordainak “Langile gastuak” kapituluaren kontabilizatu dira; ordea, izaera aintzat hartuta, “Ondasun erosketa eta zerbitzuak” atalean jaso behar ziratekeen.
  - Udalak 2009ko abenduaren 31ko egoera balantzearen “Diruzaintza” idazpuruan, 9.375 mila euroren zenbatekoa du erregistratua, epe laburrerako ezarpenetan jarritako diruzaintzako soberakinei dagokiena; horiek, ordea, “Aldi baterako inbertsio finantzarioak” idazpuruan erregistratu behar lirateke.
  - Udalak gastuen aurrekontuaren 2. kapituluaren 499 mila euro erregistratu ditu eta izaerari erreparatuta, ondarean ibilgetuko balio handi modura kontabilizatu ditu; aurrekontuan zuzen erregistratzeko, baina, gastu horiek gastuen aurrekontuko 6. kapituluaren kontabilizatu behar lirateke.
  - Oker erregistratu da sarreraren 7. kapituluaren Visesa, SATik jasotako kontraprestazio ekonomikoa, emandako ondasunen eta jasotakoen arteko balio aldea aintzat hartuta, elkarte horrekin izenpetutako hitzarmena betez. Horiek egoki erregistratzeko sarrera hauek 282 mila euroren zenbatekoarekin sarreraren 6. kapituluaren kontabilizatu behar lirateke.
  - Udalak ibilgetuarekin lotutako hainbat eragiketa erregistratu ditu kontrakontu modura “Ondarea” kontua baliatuta; horiek kontu honen saldoa 1.215 mila euroan gehitzea ekarri du. Eragiketa hauek egoki erregistratzeko kontu honen saldoa murriztu behar litzateke eta “Galera-irabaziak” kontuarena, kopuru berean gehitu (ikus A.10).

#### III.2 LANGILERIA

- Udalak ez ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu alkatearen eta zinegotzi baten ordainsariak eta dedikazio eskusiboa aitortzen zituen udalbatzaren erabakia; ez eta, beste bi zinegotziri dedikazio partziala eta zinegotzientzat asistentziagatiko kopuruak eta kalte-ordainak erabakitzen zituena ere; honek TAOLen 75.5 artikulua urratzen du.



- Udalaren LZn 5 lanpostu barne hartu dira, lanpostuak betetzeko sistema izendapen librekoa dutenak; ordea, ez da lanpostu horien apartekotasuna eta EFPLren 46.3 artikulua aipagai duen erantzukizun berezia justifikatu.
- Aldi baterako beharri zehazki eta/edo aldian behingoei aurre egiteko lan poltsak sortzeko irizpideak 2009ko otsailaren 25eko Osoko bilkuran onetsi ziren; baloratu beharreko merezimenduetan Erandioko Udalerrian erroldatua eta langabezian egotea jasotzen dira eta horrek EFPLren 33.1 artikulua urratzen du.
- Plaza hutsen kontura aurreko urteetan izendatutako 4 zerbitzu eginkizunen iraupen aldiek 2 urteko gehieneko epea gainditzen dute, EFPLren 54.5 artikuluan aurreikusitako egoerarik batere bete ez dela.
- Udalak ez ditu 2009ko EEPn barne hartu titularrak plaza erretserbarik gabe borondatezko eszedentzia egoeran dauden bost plaza (2 udaltzain, 1 musika irakasle, 1 teknikari eta 1 ingurumeneko teknikari). Horietako lau bitarteko funtzionarioek betetzen dituzte eta bosgarrena hutsik dago, nahiz aurrekontuan diru-izendapena duen; honek EFPLren 23 eta 92.2 artikulua urratzen ditu.
- Udalak bitarteko funtzionario bat izendatzeko gauzatutako hautaketa prozesuan, merezimendu modura balioztatu dira, besteak beste, txosten jakin oso berariazkoak egitea; egokiagoa da, baina, izaera objektibo eta orokorragoa duten merezimenduak bereiztea, merezimendu eta gaitasun printzipioei dagozkienak.

### III.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak 2003ko abenduaren 24ko Osokoak onetsitako Ordenantza Arautzailea du, kultura, kirol eta aisialdiaren esparruan diru-laguntzak izapidetu eta emateko dena; ordenantza honek bi diru-laguntza mota arautzen ditu, unean-uneko ekintzak finantzatzen dituen hura eta jardueren urteko programa finantzatzen dutenak. Ordenantza horren baitan eman diren diru-laguntzak aztertzerakoan, honako akats hauek azaleratu dira:
  - Ez dira Ordenantzaren aurreikusitako urteko deialdiak argitaratzen.
  - Kirol, kultura eta gazteriaren jarduerak sustatzeko elkartearen urteko programa diruz laguntzeko irizpideak (95, 75 eta 31 mila euroren zenbatekoak, hurrenez hurren) ez dira objektiboak, ez daude haztatuak eta ez daude jasota onuradunei azkenean ematen zaizkien zenbatekoak justifikatuko dituzten arrazoiak, nahiz oro har, aurreko ekitaldiko kopuru berarekin ematen diren.
  - Unean uneko izaera duten kirol eta kultura jarduerak diruz laguntzeko diru-laguntzetan eskabide epeak urte osoa besarkatzen du eta onartutako aurrekontua du muga, diru-laguntzen zenbatekoa finkatzeko modua zehazten ez dela eta azkenean ematen den zenbatekoa ere justifikatu gabe. Diruz lagundutako jardueretako batzuk azken urteetan errepikatzen dira eta honenbestez, dena delako elkartearen programa orokorrean barne hartu behar lirateke. 2009ko ekitaldian zehar, Erandioko Udalak helburu hauetarako, hurrenez hurren, 99 eta 84 mila euroren diru-laguntzak eman ditu.



- 2010eko abenduaren 2an Erandioko Udalaren Osokoak Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra eta Udalaren Ongizate, Kirol, Kultura, Hezkuntza, Euskara, Berdintasun eta Merkataritza dinamizatzeko gaietan diru-laguntzentzat berariazko arauak onetsi zituen; baita, Nazioarteko Kooperazio gaietan laguntzak edo diru-laguntzak emateko Berariazko Oinarri arauak ere, Diru-laguntzen Lege Orokorrari egokituz.
- 2009ko ekitaldian Alkatetza dekretu bitartez hainbat diru-laguntza eman dira modu zuzenean; horien izaera errepikaria aintzat hartuta, gomendagarria litzateke Udalaren Aurrekontuetan izenez jasotzea. Honako hauek dira zehazki:
    - Festak ospatzeko auzoetako batzordeei eta udalerriko eskola eta gurasoen elkarteei hainbat jarduera egiteko diru-laguntzak (bi diru-laguntzak biztanle kopuru eta ikasle kopuruaren arabera zati-banatuak), hurrenez hurren, 180 eta 62 mila eurorenak.
    - Deustuko Unibertsitateari udalerrian hezkuntza proiektu bat aurrera ateratzeko emandako diru-laguntza, 28 milioi euroren zenbatekoan eta aurreko urteetan izenpetutako hitzarmen batean babestua, baina 2009an indarra zuena; eta irabazi asmorik gabeko elkarte bati “berbalagun” programa garatzeko emandako diru-laguntza, 14 mila euroren zenbatekoan.
  - Diru-laguntza izenduna eman zaio Erandioko Musika Banda taldeari, 106 mila eurorena; ez dute, ordea, Udalarekin 2007ko ekitaldian 4 urtetarako izenpetutako hitzarmenaren hamargarren klausulan jasotako dokumentazioa igorri, 2009ko ekitaldian emandako zenbatekoaren justifikazio modura.
  - Zuzenean 89 mila euroren diru-laguntzak eman dira, garapen bidean dauden herrialdeetan bederatzi kooperazio proiektu garatzeko. Diru-laguntza mota hau dagokion deialdia deituta ematea komeniko litzateke.
  - Aztertutako diru-laguntza guztietan diruz lagundutako jardueren justifikazioa ez da aurkeztutako aurrekontu osoarekin egiten, emandako zenbatekoarekin baizik.
  - Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Arautzaileak ez du emandako diru-laguntza itzularaztea aurreikusten justifikatzen ez den kasuetan, baizik eta hurrengo urtekoan onuradun ez izatea ezartzen du.
  - Elkarte bati helburu bera betetzeko gazteria eta euskara sailek diru-laguntza bana eman diote (Gazte Txoko Programa); justifikazioa, baina, bi sailek guztira diruz lagundutakoa (17 mila euro) baino kopuru txikiagoa izan da (12 mila euro) eta ez zaio jasotako soberakina itzultzeko eskatu. Bestetik, elkarte berak “berbalagun” programarako eman zaion 14 mila euroren diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu duen dokumentazioak Udalak emandako beste diru-laguntza batzuk justifikatzeko aurkeztu diren agiriak jasotzen ditu, guztira 9 mila euro egiten dutenak.
  - Udalak ez du BAOn emandako diru-laguntzen emakida ebazpenaren laburpenik argitara ematen, kopuruak banaka hartuta 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen dutenean, edukia osorik zein tokitan dagoen eskuragarri adieraziaz, DLoren 18.2 artikulua agintzen duenari jarraiki.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udalak ez die diru-laguntzen onuradunei zerga edo Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotuta egoteko betekizuna egiaztatzeke eskatzen (DLOren 14. artikulua).

### III.4 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.16):

#### - Espedientea

Guztira 18.186 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (1 zk. esp.) prozedura berean kale garbiketa eta zabor bilketa zerbitzuen kontratazioa lehiatu da, bien artean guztien intereseko beharrezkoa edo komenigarria den osagarritasun loturarik dagoela justifikatu gabe (SPKLren 25.2 artikulua).

#### - Administrazio klausula partikularren pleguak

Guztira 31.132 mila euroan esleitutako bederatzi kontratari dagozkien pleguek (1etik 9ra bitarteko esp.), besteak beste, esleipen irizpide zehaztugabeak, ez objektiboak edo lehiatzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutakoak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 86. artikulua edo SPKLren 134. artikulua agintzen duten moduan.

Guztira 5.395 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu baten pleguek (8 zk. esp.) eskaintza merkeenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte (SPKLren 134 eta 135 artikulua).

Udal kiroldegietan kirol jarduerak antolatzea xede duen kontratuaren oinarri-arau teknikoen pleguetan, 1.094 mila euroren zenbatekoan esleitutakoa (3 zk. esp.), ez dira kontratua betetzeko baldintza teknikoak zehazten; gainera, helburu anitzeko kontratua da eta ez da prestazio bakoitza besteekiko askatasunez definitu, kontratugilearen prestazioa kontratua gauzatu osteko ebazpen edo administrazioiko adierazpenetara baldintzapetua utziz (APKLTBren 51. artikulua eta APKLEOren 2. art.).

Guztira 10.382 mila euroren zenbatekoan esleitutako sei kontratari dagozkien pleguetan eskatzen den kaudimen teknikoaren betekizuna (nº 3, 4, 8, 9, 12 eta 13 zk. esp.) lizitazio aurrekontuaren arabera finkatzen da eta ez SPKLren 63 eta hurrengo art., APKLTBren 17 eta hurrengoetan eta APKLEOren 26, 36, 38 eta 46 artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

Aurreko urteetan 3.345 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratari dagozkien pleguek (3 eta 7 zk. esp.) kontratuak APKLTBren 198. artikuluan ezarritako epea gainditzeko aukera jasotzen dute, esleipenduna zerbitzu ematen jarraitzera behartzen baitute harik eta esleipendun berriak horiek bere gain har ditzan arte.

Bi kontraturen pleguetan jasotako prezioen balioetsitako balioak, 2009ko ekitaldian 6.207 mila euroren zenbatekoan esleitu zirenak (6 eta 8 zk. esp.), ez du kontratuaren balizko luzapenik barne hartzen, SPKLren 76. artikuluan agintzen den moduan. Beste espediente batean (7 zk. esp.), lehenagoko urteetan 2.251 mila euroan esleitutakoa, pleguak lehenengo urtekoaren prezioa soilik jasotzen du (APKLEOren 195. artikulua).



Guztira 18.186 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (1 zk. esp.) ez dago egiaztatuta lehiatzaile bati kanporatu aurretik entzutea eman zitzaionetik, APKLEOren 81 artikulua agindutako terminoetan.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako obren hiru espedienteetan, 1.784 mila eurokoak (12, 13 eta 14 zk. esp.) ez da espedienteetan egiaztatu negoziazio horren emaitza esleipena egin den unean (SPKLren 160 art.).

#### - Esleipena

Guztira 4.558 mila euroren zenbatekoan esleitutako lau kontratutan (2, 3, 6 eta 7 zk. esp.) kontratazio mahaiaren osaera ez zaio SPKLren Xedapen Gehigarri 2.ean edo APKLTBren 9.ean adierazitakoari egokitzen, izan ere Udalaren Idazkaria aritu da mahaiaren idazkari lanetan.

Guztira 24.435 mila euroren zenbatekoan esleitutako bost espedienteetan, aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide eta azpi-irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen (1, 3, 4, 5 eta 7 esp.).

Guztira 20.181 mila euroren zenbatekoan esleitutako lau kontraturen eskaintzak aztertzen dituen txosten teknikoan (1, 3, 6 eta 9 zk. esp.) pleguetan finkatutako irizpideak azpi-irizpideetan garatu dira eta horiek bertan zehaztu behar ziratekeen, APKLTBren 88 artikulua eta SPKLren 135 artikulua agintzen duten moduan.

Guztira 26.644 mila euroan esleitutako lau kontratutan (1, 6, 7 eta 8 zk. esp.) eratutako behin-betiko bermea SPKLren 83. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa da, izan ere, lehenengo urtekoari dagokion zenbatekoari soilik ezarri zaio ehunekoa.

Guztira 18.587 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zk. esp.) ez da esleipena kontratugilearen profilean argitaratu, SPKLren 42. artikuluan agintzen den modura. Beste lau kontratutan, 7.891 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, (3, 5, 6 eta 8 zk. esp.) esleipena ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu (DOUE, BOE) APKLTBren 93.2 artikuluan adierazitakoa urratuz.

Guztira 2.904 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi espedienteetan (4 eta 5 esp.) ez dago erasota esleipen hartzaile den enpresak giza eta zerga obligazioak bete dituela edota iraungita aurkeztu dute (APKLEOren 13. artikulua eta hurrengoak).

#### - Exekuzioa eta harrera

Altxagan metroaren zabalgunea urbanizatzea xede duen obra kontratua (10 zk. esp.) 3.392 mila euroan esleitu zen 2009an; kontratu horretan obra gauzatzeko epea luzatuz joan da esleipendunari ezargarriak zaizkion arrazoiengatik; ez da, ordea, erantzukizunik eskatu eta ez da luzapenak eskatzeko epea gorde, APKLEOren 100. artikulua agintzen duenaren arabera.

Guztira 19.280 mila euroan esleitutako bi kontraturen exekuzioan zehar (1 eta 3 zk. esp.), hainbat aldaketa txiki egin dira eta ez ditu horiek kontratazio atalak onartu, SPKLren 202.3 artikulua eta APKLTBren 101.2 artikulua agindutakoaren aurka.



2.314 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (4 zk. esp.) ez da egokitu onartutako aldaketatik eratorritako bermea. Beste kontratu batean, berriz, 911 mila euroan esleitutakoa (13 zk. esp.), aldaketari dagokion bermea kalkulatu da SPKLren 83 artikulua agindutakoa baino ehuneko txikiagoa aplikatuta.

Aztertutako hornidura kontratu batean, 89 mila euroren zenbatekoan esleitutakoa (9 zk. esp.), harrera akta finkatua dagoen 7 eguneko epearekiko 2 hilabetetik gorako atzerapenez gauzatu da (SPKLren 268 artikulua). Berebat, 2009an 911 mila euroren zenbatekoarekin esleitutako obra kontratu batean (13 zk. esp.) ez dago erasota harrera akta gauzatu dela, ez eta obra likidazioaren azken ziurtagiria ere, SPKLren 218 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Guztira 3.392 mila euroren zenbatekoan esleitutako obra kontratu batean (10 zk. esp.) ez da egiaztatu ez esleipenean, ez egikaritzan ere, obra egiten ari den langileriaren izatea, nahiz lan kontratazioa sustatzeko kontratua den eta esleipena egiteko aintzat hartu den irizpideetako bat izan (192 eta 193 artikulua, SPKLren 53.2 artikuluekin loturik).





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2009ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko				
	Urtea			Urtea			Erref. ___	
	07(*)	08(*)	09	07	08	09	Bizk	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	13.102	12.234	14.404	547	510	594	421	437
Transferentzia arruntak (4. kap.) .....	18.946	17.740	16.729	791	740	690	670	643
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	422	526	325	18	22	13	44	34
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>32.470</b>	<b>30.500</b>	<b>31.458</b>	<b>1.356</b>	<b>1.272</b>	<b>1.297</b>	<b>1.135</b>	<b>1.114</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	10.000	10.939	11.221	417	456	462	380	387
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	12.187	13.415	13.747	509	559	567	441	413
Transferentzia arruntak (4. kap.) .....	1.963	2.064	2.137	82	86	88	168	190
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>24.150</b>	<b>26.418</b>	<b>27.105</b>	<b>1.008</b>	<b>1.101</b>	<b>1.117</b>	<b>989</b>	<b>990</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>8.320</b>	<b>4.082</b>	<b>4.353</b>	<b>348</b>	<b>171</b>	<b>180</b>	<b>146</b>	<b>124</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	27	27	10	1	1	-	1	4
<b>Emaizta arrunta.....</b>	<b>8.293</b>	<b>4.055</b>	<b>4.343</b>	<b>347</b>	<b>170</b>	<b>180</b>	<b>145</b>	<b>120</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	115	118	128	5	5	5	17	25
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>8.178</b>	<b>3.937</b>	<b>4.215</b>	<b>342</b>	<b>165</b>	<b>175</b>	<b>128</b>	<b>95</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	-	776	-	-	32	32	48
Jasotako kapital transferentziak (7. kap.).....	2.967	5.425	5.183	124	226	214	284	260
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	9.931	6.312	9.496	414	263	391	455	461
- Emandako kapital transfer. (7. kap.).....	-	-	50	-	-	2	9	17
<b>Kapitalezko eragiketen emaitza .....</b>	<b>(6.964)</b>	<b>(887)</b>	<b>(3.587)</b>	<b>(290)</b>	<b>(37)</b>	<b>(147)</b>	<b>(148)</b>	<b>(170)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	1.329	3.168	756	57	133	33	(3)	(50)
Diruzaintzako geldikina.....	4.515	6.699	6.544	188	279	270	681	525
12.31n zorpetzea.....	550	432	3.563	23	18	147	37	143

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundeen Kontuei buruzko HKEEren 2009ko behin-betiko txostena. "Bizk." erreferentzia, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaiko udalen datuei dagozkie. "EAE" erreferentzia, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten EAEko udalen datuei dagozkie.



**Sarrera arruntak:** 2008an % 6 egin dute behera eta % 3 egin dute gora 2009an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek % 7 egin dute behera 2008an eta % 18 gehitu dira 2009an. Bariazio hau, nagusiki, Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren Zergak eragindako diru-sarrerak gora egin izanari dagokio, izan ere, ekitaldi bakoitzean onartzen diren eraikuntza proiektu eta lizentziei meneratzen zaizkie eta honenbestez, merkatuko fluktuazioen baitako dira. 2009ko ekitaldian zehar lizentziak eman dira etxebizitzak eraikitzeke bi obratarako eta pabiloiak eraikitzeke beste baterako, hurrenez hurren, 405 mila eta 196 mila euroren zenbatekoan. Gainerako sarrerek goranzko joera izan dute; hona hemen azpimarragarriena:
  - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerek % 2 egin zuten gora 2009an.
  - Tasa eta bestelako sarrerek eragindako diru-sarrerak % 26 gehitu dira 2009an. Igoera hau bi arrazoik eragin dute nagusiki: batetik “Bestelako itzultzeak” kontu-sailak izan dituen sarrera handiagoek, 2008an 38 mila euro izatetik 2009an 789 mila euro izatera pasa dena, izan ere Altzagako Ibarra, 7 eta 9an eta San Agustin Plaza, 4an dauden etxeen jabeei Udalak ordaindutako kopuruak eragin zaizkie, eraikinaren egoerak eragindako berehalako arriskuak aurreikusteko gauzatutako hasierako irtenaraztearen eta hormak eusteko lanen ondorioz; eta bestetik, kiroldegiak erabiltzeagatik tasa kontzeptuan bi aldiz erregistratutako kontularitzako ohar batek, 213 mila eurokoa eta HKEEK doitutakoa.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako sarrerak % 6 murriztu ziren 2008an eta 2009an. Osagairik garrantzitsuena Udalkutxa da eta horren likidazioak onartzen diren ekitaldian erregistratzen ditu Udalak, zorpetzen diren urteari egotzi beharrean; horregatik, 2008ko likidazio negatiboak 2009an du eragina. Alabaina, 2009ko likidazio negatiboa, 3.259 mila eurokoa, itzulketak egin ahala erregistratuko da, 2011ko urtarrilean hasi eta 2013ko abenduan amaituta. Kontzeptu honen izenean hirurtekoan erregistratu diren diru-sarrerak, hurrenez hurren, 14.016, 15.104 eta 13.619 mila eurokoak izan dira.
- **Ondare sarrerak:** % 25 egin zuten gora 2008an eta % 38 murriztu ziren 2009an. 2009ko beheraldia banketxeetan interes baxuen ondorioz gordailuen interes kontzeptuan erregistratutako diru-sarrerek behera egin izanak eragin du.

**Funtzionamendu gastuak:** Aztergai izan dugun aldian % 12 egin dute gora eta 2009an igoera 2008ko ekitaldiarekiko % 3koa izan da; bada, langile gastuek % 3 egin dute gora, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak, % 2 eta transferentzia arruntek eragindako gastuak, berriz, % 4.

- **Langile gastuak:** % 9 egin zuten gora 2008an eta % 3, 2009an. 2009an izandako igoera nagusiki 2009ko urtean izan den ordainsari igoerari zor zaio, % 2,4koa izan dena.
- **Ondasun arruntaren erosketak eta zerbitzuak:** % 10 egin zuten gora 2008an eta % 2, berriz, 2009an.



- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Gastu hauek % 5 gehitu ziren 2008an eta % 4, berriz, 2009an. 2009ko ekitaldiko aldaketa nagusiak gizarte larrialdietarako laguntzetan familiei egindako transferentzien igoera azpimarratu behar da, 2008an 665 mila euro izatetik 2009an 890 mila izatera aldatu dena; baita kirol eta kultura jardueretarako laguntzetan izan den murrizketa ere.

**Aurrezki gordina:** Magnitude honek % 51 egin du behera 2008ko ekitaldian 2007ko ekitaldiarekiko, funtzionamendu gastuek % 9 egin baitute gora eta sarrera arruntak, berriz, % 6 jaitsi baitira. 2009ko ekitaldian % 7ko igoera izan da, sarrera arrunten igoera gastu arruntena baino handiagoa izan delako.

**Aurrezki garbia eta zorpetzea:** Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Udalak 2008 eta 2009an aurrezki garbi positiboa izan du eta ez du zorpetzea baliatu beharrik izan. Magnitude honek 2009an 2008koarekiko izan duen goraldia 2009ko ekitaldiko Udalkutxaren behin-betiko likidazioa barne hartu izanak eragin du, 3.259 mila eurokoa; horren itzulketa 2011, 2012 eta 2013an gauzatuko da.

**Kapitalezko eragiketen emaitza:** Aztergai izan dugun aldian, inbertsioak besterentzeak eta kapitalezko diru-laguntzek eragindako sarrerak egin diren inbertsioak baino askoz txikiagoak izan dira; eta horrek eragin du magnitude honek saldo negatiboa izatea (6.964, 887 eta 3.587 mila eurokoa izan da 2007, 2008 eta 2009an, hurrenez hurren). 2009an gastu handia egin zen inbertsio errealetan (9.496 mila euro), 2008an egin zenaren aldean (6.312 mila euro); besteak beste, Altzagako metroaren zabalgunea urbanizatzeko egin ziren inbertsioak gailentzen dira, 2.768 mila eurokoak. Gastu hauen aurrean, 2009an jasotako diru-laguntzek eragindako diru-sarrerak (5.183 mila eurokoak), nahiz 2008ko ekitaldikoak baino zertxobait txikiagoak diren (5.425 mila euro), inbertsio errealak besterentzetik eratorritako diru-sarrerekin berdinkatzen dira, 776 mila euro gehitu baitira; igoera honen arrazoia da Fatima 15 zk. bizitegi-lurzoruaen jarduera unitatearen hirigintzako aprobetxamendua dirutan emateari zor zaio; horrek eragin du magnitude hau negatiboa izateaz gain, 2009an izugarri jaitsi izana 2008ko ekitaldiarekiko.



**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** 2008 eta 2009ko ekitaldiek, hurrenez hurren, 3.168 eta 756 mila euroren saldo positiboa dute eta eskuratutako baliabide horiek baliatu ditu Udalak gastu arruntak, finantzarioak eta inbertsio errealak finantzatzeko. Nolanahi den ere, magnitude honek nabarmen egin du behera 2009ko ekitaldian 2008ko ekitaldiarekiko, batik bat Kapitalezko Eragiketaren Emaitzak izan duen saldo negatiboak gora egin izanaren ondorioz.

**Diruzaintza geldikina:** Aztergai izan dugun aldian magnitude honek % 45 egin du gora eta 2007an 4.515 mila eurokoa izatetik 2008an eta 2009an, hurrenez hurren, 6.699 eta 6.544 mila eurokoa izatera aldatu da. Epaitegi honek proposatu dituen 296 mila euroren doiketak eta 2009ko ekitaldiko itunpeko zergetan (Udalkutxan) parte hartzeagatiko 3.259 mila euroren likidazio negatiboa aintzat hartuta –udalak kontabilizatu ez duena-, Diruzaintza Geldikina 3.581 mila eurokoa izango litzateke.

**Biztanleko ratioak-beste udal batzuekiko alderaketa:** Informazio modura, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaia eta EAEko udalen batez bestekoaren 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.

**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikina eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Aztergai izan dugun aldian, Erandioko Udalak inbertsio-ahalegin handia egin du eta hori finantzatzeko baliatu ditu jasotako diru-laguntzek eragindako sarrerak, urte hauetan lortu duen aurrezki garbi positiboa eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2009ko ekitaldiaren Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren likidazio negatiboaren ordainketa geroratzearekin emandako finantzaketa.



Udalak 2010eko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa onartu du (Epaitegi honek fiskalizatu gabeko ekitaldia); bertan, kitatutako sarrera arruntak aurreko ekitaldian kitatutako diru-sarrerak baino % 5 txikiagoak dira, batik bat itunpeko zergen diru-bilketa (zeinetan toki administrazio guztiek esku hartzen duten) txikiagoa izan delako; honen aldean, funtzionamendu gastuek % 2 egin dute gora 2009ko ekitaldiarekiko. Honen guztiaren ondorioz, 2010eko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren aurrezki gordinak eta garbiak, hurrenez hurren, % 50 eta % 56ko beherapena izan dute 2009ko ekitaldikoarekiko. 2010eko aurrekontuaren likidazioan kapital eragiketen emaitzak negatiboa izaten jarraitzen du (3.122 mila euro), nahiz 2009ko aurrekontuen likidazioaren emaitza baino % 13 txikiagoa den. Honez gain, eragiketa ez finantzarioen emaitza negatiboa denez gero (954 mila euro), inbertsioen guztizkotik (7.292 mila euro) 2010ean gehitutako Diruzaintza Geldikinarekin finantzatu ez den zatia aurrezki garbi bidez finantzatu da, ez baita 2010eko ekitaldian zorpetzeko bestelako inongo eragiketarik itundu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	6.650	73	6.723	7.050	5.804	1.246	105
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	850	-	850	967	935	32	114
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	5.069	168	5.237	6.387	4.470	1.917	122
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	17.247	832	18.079	16.729	16.298	431	93
5.- Ondare sarrerak .....		635	-	635	325	325	-	51
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	A.5	2.050	-	2.050	776	776	-	38
7.- Kapitallezko transferentziak .....	A.4	2.595	5.563	8.158	5.183	3.914	1.269	64
8.- Aktibo finantzarioak .....		6	6.699	6.705	12	12	-	(*)200
9.- Finantza pasiboak .....		6.540	-	6.540	-	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>41.642</b>	<b>13.335</b>	<b>54.977</b>	<b>37.429</b>	<b>32.534</b>	<b>4.895</b>	<b>(*)78</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1.- Langile-gastuak .....	A.6	12.657	(565)	12.092	11.221	10.995	226	93
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.7	15.061	1.254	16.315	13.747	11.170	2.577	84
3.- Finantza gastuak .....	A.11	122	-	122	10	10	-	8
4.- Transferentzia arruntak .....	A.8	1.491	770	2.261	2.137	1.903	234	95
6.- Inbertsio errealak .....	A.9	12.161	11.826	23.987	9.496	7.202	2.294	40
7.- Kapitallezko transferentziak .....	A.8	-	50	50	50	-	50	100
8.- Aktibo finantzarioak .....		15	-	15	11	11	-	73
9.- Finantza pasiboak .....	A.11	135	-	135	128	128	-	95
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>41.642</b>	<b>13.335</b>	<b>54.977</b>	<b>36.800</b>	<b>31.419</b>	<b>5.381</b>	<b>67</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>629</b>			



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA		Euroak milakotan			
	ERANSK.	HASIER. ZORRA	BALIOG. ORDAIN.	KOBR./ AZKEN ZORRA	
Zordunak .....	A.12	9.970	(251)	3.876	5.843
Hartzekodunak .....		5.115	5	4.914	196
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(246)</b>		

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....		37.429
Aitortutako obligazioak.....		36.800
<b>AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA, INDarREKO AURREKONTUA</b>		<b>629</b>
<b>AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(246)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>383</b>
Finantziazio-desbideratzeak.....		131
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		2.938
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>3.452</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 09.1.1ean .....		6.698
Aurrekontuaren emaitza .....		383
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak .....		(577)
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz. ....		40
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 09.12.31-N</b>		<b>6.544</b>
Diruzaintza .....		11.919
Aurrekontuko zordunak (A.12) .....		10.738
Aplikatzeke dauden ordainketak (A.13) .....		1
Aurrekontuko hartzekodunak .....		(5.577)
Sarrerren itzulketeng. hartzekod. ....		(3)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.13).....		(3.618)
Aplikatzeke dauden sarrerak (A.13) .....		(1)
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.12) .....		(6.915)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 09.12.31-N</b>		<b>6.544</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....		(3.525)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>		<b>3.019</b>
<b>09.12.31-N ZORPETZEA</b>		<b>3.563</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009 ETA 2008-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK. URTEA 09	URTEA 08	PASIBOA	ERANSKINA	URTEA 09	URTEA 08
<b>IBILGETUA</b>		<b>59.896</b>	<b>57.977</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>62.892 64.158</b>
Erabilera orokorrekoa..... A.10	5.956	5.584	Ondarea.....		40.663	39.448
Ibilgetu ezmateriala..... A.10	181	194	Lagapenean dagoen ondarea..... A.10	1	1	
Ibilgetu materiala..... A.10	53.747	52.187	Lagatako ondarea..... A.10	(1.198)	(1.101)	
Ibilgetu finantzarioa..... A.10	12	12	Erabil. Orokor. emandako ondarea..... A.10	(27.356)	(19.793)	
			Aurreko ekitaldietako emaitza.....	45.603	38.883	
			Galera-irabaziak.....	5.179	6.720	
			<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>		<b>3.421</b>	<b>310</b>
			Sekt. publ. entitateekiko zorrak..... A.11	3.265	7	
			Beste zor batzuk..... A.11	156	303	
<b>ZORDUNAK</b>		<b>3.823</b>	<b>3.632</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>9.341 9.633</b>
Indarreko ekitaldiaren aurrek. A.12	4.895	4.002	Indarreko ekitaldiaren aurrek.....	5.381	5.010	
Ekitaldi itxien aurrek..... A.12	5.843	5.968	Ekitaldi itxien aurrek.....	196	105	
